

ESKUALDEKO LEHIAKORTASUNA SUSTATZEKO PROGRAMAKO DIRU-LAGUNTZAK ARAUTZEN DITUEN FORU DEKRETUAREN PROIEKTUAREN AURRERAKUNTZAREN AURRETIAZKO JENDAURREKO KONTSULTAREN TRAMITEA.

Ekonomia Sustatzeko Sailak, Lurralde Lehiakortasuna eta Turismoa Bultzatzeko Zuzendaritza Nagusiaren bidez, Bizkaia Orekan Sakonduz ekimena garatzen du Bizkaiko udalerriekin eta toki garapenerako erakundeekin lankidetzan. Ekimen horren barruan uste da derrigorrezkoa dela Toki Garapeneko Agentziak, irabazteko asmorik gabeko erakundeak eta eskualde mailan lehiakortasunaren hobekuntzaren eta garapen orekatuaren arloetan ekintzak garatzen dituzten toki erakundeak laguntzea.

a.- Arauketa berriaren bidez konpondu nahi den arazoa

Toki Garapeneko Agentziak batez ere enpleguaren, ekintzailetasunaren eta pertsonen prestakuntzaren arloetan finkatzen diren jarduerak garatzen dituzte.

Bizkaia Orekan Sakonduz proiektuaren markoan enpresa lehiakortasuna eta garapen orekatua hobetzeko jarduerak garatzen dituzte; jarduketa horien ardatza erronka jakin batzuei ekitea da, hau da, oinarritzat enpresa jotzen dutenak eta egiten diren jarduketa horietan finkatuz.

Planteatu diren erronkak ebazteko eta enpresa mailako lehiakortasunaren arloko jarduketak garatzeko beharrezkoak diren jarduketak sustatzeko eta garatzeko jarduera berri hauek guztiek bitarteko teknikoak eta giza baliabideak behar dituzte.

b.- Testu arauemailea onartzea beharrezkoa den eta aukerarik egokiena den ala ez

Detektatu diren arazo horiei ekiteko derrigorrezkoa da Toki Garapeneko Agentziak, irabazteko asmorik gabeko erakundeak eta toki izakiak enpresa mailako lehiakortasunaren esparruko jarduketak garatzen laguntzeko diru-laguntzen programa bat egituratzea.

c.- Arauaren xedea

Arautegiaren xedea ekonomia sustatzeko jarduerak garatuko dituzten Toki Garapeneko Agentziak eta irabazteko asmorik gabeko beste erakunde batzuek arautu nahi diren alderdi guztietan foru administrazioaren laguntza jaso ahal izateko baldintzak erregulatzea da.

TRAMITE DE CONSULTA PÚBLICA PREVIA DEL AVANCE DEL PROYECTO DE DECRETO FORAL REGULADOR DE LAS SUBVENCIONES DEL PROGRAMA DE IMPULSO A LA COMPETITIVIDAD COMARCAL.

El Departamento de Promoción Económica, a través de la Dirección General de Competitividad Territorial y Turismo, desarrolla conjuntamente con los municipios y entidades de desarrollo local de Bizkaia la iniciativa Bizkaia Orekan Sakonduz. En el marco de esta iniciativa considera necesario apoyar a las Agencias de Desarrollo Local a Entidades sin Ánimo de Lucro y a las entidades que desarrollan acciones para la mejora y el desarrollo equilibrado de la competitividad comarcal.

a.- Problema que se pretende solucionar con la nueva regulación

Las Agencias de Desarrollo Local vienen desarrollando un conjunto de actividades centradas fundamentalmente en el ámbito del empleo, el emprendimiento y la formación de las personas.

En el marco del proyecto Bizkaia Orekan Sakonduz se están desarrollando actividades para la mejora de la competitividad empresarial y el desarrollo equilibrado de las comarcas, centrándose en el abordaje de retos en los que las empresas son el centro de atención sobre el que se desarrollan las tareas que se realizan.

Este conjunto de nuevas actividades destinadas a impulsar y desarrollar actuaciones necesarias para la resolución de los retos planteados y actuaciones en el ámbito de la competitividad empresarial precisan de recursos técnicos y humanos.

b.- Necesidad y oportunidad de aprobar el texto normativo

Abordar los problemas detectados implica la necesidad de articular un programa de subvenciones que permitan apoyar a las Agencias de Desarrollo Local, a Entidades sin Ánimo de Lucro y a las entidades locales en el desarrollo de actuaciones en el ámbito de la competitividad empresarial.

c.- Objeto de la norma

El objeto de la normativa será regular las condiciones para que las Agencias de Desarrollo Local y otras Entidades sin Ánimo de Lucro que desarrollan actividades de promoción económica puedan ser apoyadas por la administración foral en los diferentes aspectos que se pretenden regular.



d.- Planteatutako arazoarentzat arauzkoak eta arauzkoak ez diren irtenbide alternatiboak.

Detektatu diren arazoei diru-laguntzen bidez konponbidea ematea herri administrazioek askotan erabiltzen duten erreminta da.

e.- Arau-proposamenak ukitutako helburu publikoak eta nortzuei zuzendu behar zaien.

Eragin-esparruetan enpresen lehiakortasunaren hobekuntza eta garapen orekatua lortzeko jarduerak egingo dituzten Toki Garapeneko Agentziak eta irabazteko asmorik gabeko erakundeak.

d.- Existencia de soluciones alternativas regulatorias y no regulatorias al problema planteado.

Las soluciones a los problemas detectados mediante subvenciones es un instrumento comúnmente utilizado por las Administraciones Públicas.

e.- Públicos objetivos afectados por la propuesta normativa y a quienes se debe dirigir.

Agencias de Desarrollo Local, Entidades sin Ánimo de Lucro y entidades locales que realicen actividades para la mejora y el desarrollo equilibrado de la competitividad empresarial en sus áreas de influencia.